



Elexalde Auzoa,9
48288 ISPASTER (Bizkaia)
Tfnoa.: 946842999 –946844025
Faxa.: 946243470
kulturetxea@ispaster.net
www.ispaster.net

ISPASTERKO UDAL LIBURUTEGIKO SARRERA ETA ERABILPEN ARAUTEGIA

Ispasterko Udal Liburutegia jabari eta zerbitzu publikoko udal ondasuna da. Liburuak kontsultatu, etxera eraman zein irakurtzeko zerbitzua eta informazio bibliografikoa eskaintzen da bertan, dokumentu funtsen eta zerbitzu teknikoen bitartez pertsoneri kultura mailan aberasteko aukera zabala emanez.

Ispasterko Udal Liburutegiak, liburutegi publikoa den heinean, aisialdi, informazio, kultura eta heziketa beharrak betetzeko tresnak eskuragarri jarri behar ditu, herritarrentzat eta aldi berean, bertoko kultura bultzatu, irakurketa sustatu eta aldi berean informazioa lortzeko baliabideak bermatuko dituen erakundea izan.

Ispasterko Udalaren egitekoa da instalazio horien funtzionamendua arautzea, eta hari dagokio beti erabilera baldintza onetan edukitzea, arau orokorren eta erabilerarako arautegi honetan jasotzen diren arauen arabera. Udala instalazioen funtzionamendu, hobekuntza, antolakuntza eta administrazioaz arduratuko da liburutegiko zerbitzu teknikoen bidez.

I.- KAPITULUA Liburutegira sarrera

1. artikulua

1994ko UNESCOren Izaera Publikoko Liburutegien Manifestuaren gomendioak jarraituz, Ispasterko Udal Liburutegia doako zerbitzu publiko bat da. Era berean, sarrera herritar guztiei irekia du. Hala ere, liburutegiko arduradunek printzipio honi mugak jarri ahal dizkie, iskanbilak edo algarako sortzen duen edonori.

2. artikulua

9 urte (hau barne) baino gutxiagoko haurrak heldu batez lagunduta egon beharko dute liburutegian eta liburutegiak ez du haur hauen ardura beregain hartuko.

3. artikulua

Liburutegiaren ordutegiari dagokionez, bere ordutegia 9:00-20:00 arteko izango da, ondorengo berezitasunekin:

- Lanegunetan 10:00tik 14:00tara. Ordu horietan sarbidea librea izango da, giltza elektronikoa izan edo ez, edozein pertsona sartu ahal izango da.
- Gainerako egun zein orduetansarbidea mugatua izango da, giltza elektronikoa dutenek soilik sartu ahal izango dute.

Zehaztutako ordutegitik kanpo erabili nahi badu erabiltzaile batek kasu puntaletarako (azterketa sasoiari esate baterako), 15 egun lehenago idatziz eskaria egin beharko du. Eta udalak erantzuna emango dio eskaria onetsiz edo ezetsiz,



Elexalde Auzoa,9
48288 ISPASTER (Bizkaia)
Tfnoa.: 946842999 –946844025
Faxa.: 946243470
kulturetxea@ispaster.net
www.ispaster.net

4. artikulua

Giltza elektronikoa eskuratzeko eskubidea izango dute 10 urtetik gorako (hau barne) pertsonak. Halaber, giltza elektronikoa lortzeko, dagokion inprimakia bete beharko dute Ispasterko Udaletxean eta bost euroko bermea jarri beharko dute sarrera giltza hartzeko.

II.- KAPITULUA Liburutegiaren erabilera

5. artikulua

Liburutegiko gune ezberdinen arteko armonia eta elkarbizitza errazteko, beharrezkoa da iskanbilak nahiz algarak ez sortzea, eta portaera egokia mantentzea kontuan izanez udal liburutegia leku publikoa dela. Gauzak horrela, arau hauek bete beharko dira:

- Isiltasuna mantendu.
- Gainontzeko erabiltzaileak errespatatu inolako molestiarik sortu gabe.
- Ezin da jan, edan edota erre.
- Liburutegiko materiala era egokian erabili, apurtu edo hondatu barik.
- Jesarlekutik kanpo 30minutu baino gutxiago egon. Gehiago izanez gero beste norbaitek okupa dezake.
- Ez erreserbatu lekuak.
- Telefono mugikorrak, irratiak edo bestelako erreproduzitzailerako erabiltzaileei molestiarik sortu gabe erabili.
- Animaliak edota ibilgailuak (txirringa, patinetea,...) kalean hutsi; betiere, pertsonaren mugikortasunerako edo orientaziorako beharrezkoa ez bada.

Arau horiek ez badira betetzen liburutegi esparrutik bota ahal izango dira erabiltzaile horiek eta beharrezko neurriak hartuko dira. Hala behar izanez gero, kasu bakoitzean dagokion agintariari jakinaraziko zaio.

6. artikulua

Liburutegia ez da erantzule egingo bertan gertatutako lapurketek ezta erabiltzaileek bertan ahaztutako objektuek.

III.- KAPITULUA Funtsen kontsulta

7. artikulua

Liburutegiko funts eta dokumentu guztiak erabiltzeko eskubidea izango dute erabiltzaile guztiek, eskuragarri ez daudela propio adierazten duten funtsak izan ezik.



Elexalde Auzoa,9
48288 ISPASTER (Bizkaia)
Tfnoa.: 946842999 –946844025
Faxa.: 946243470
kulturetxea@ispaster.net
www.ispaster.net

8. artikulua

Informatika zerbitzuak Ispasterko Udal Liburutegiko bazkideei liburutegiak eskaintzen dien informazioa eskuratzeko zerbitzua da, KZgunearekin elkarlanean. Beraz, bere erabilera informazioa eskuratzeko eta eskolako lanak egiteko mugatzen da. Ezin da aipatutakoak ez diren bestelako erabilerarik egin.

IV.- KAPITULUA Mailegu zerbitzua

9. artikulua

Mailegu zerbitzuak denbora mugatu baterako, irakurleei hainbat dokumentu liburutegitik ateratzeko aukera ematen dio, ondoren adierazten diren ezaugarriak kontuan hartuta:

LEHENEGO ATALA Funts mailegagarriak

10. artikulua

Liburutegia osatzen duten material guztiak dira mailegagarriak, ondorengo hauek izan ezik:

- Erreferentzia obrak edo kontsulta maiztasun handia daukatenak (hiztegiak, atlasak, entziklopediak..).
- Aldizkariak.

BIGARRENATALA Bazkietza

11. artikulua

Mailegu zerbitzua pertsona guztiei irekita dagoen doako zerbitzua da: Baldintza bakarra Euskadiko Liburutegien Sistema Nazionaleko liburutegiko txartela eskuratzea da, zeinekin bazkide izaera lortzen den.

Aipatutako txartela izateak Euskadiko Liburutegien Sistema Nazionaleko edozein liburutegitan mailegutza zerbitzua erabiltzea ahalbidetzen du.

12. artikulua

Liburutegiko bazkide txartela pertsonalki eskatu beharko da Udaletxean edo liburutegian bertan, prestatuta dauden inprimakiak betez. Liburutegiko bazkide izateak bai Ispasterko Udal Liburutegiko arautegia bai Euskadiko Liburutegien Sistema Nazionaleko liburutegiko arautegia onartzea eta betetzea adierazten du.



Elexalde Auzoa,9
48288 ISPASTER (Bizkaia)
Tfnoa.: 946842999 –946844025
Faxa.: 946243470
kulturetxea@ispaster.net
www.ispaster.net

13. artikulua

Bazkide txartela transferiezina eta pertsonala da. Mailegu zerbitzua erabili ahal izateko ezinbestekoa da bazkide txartela aurkeztea.

14. artikulua

Bazkide txartelaren galera liburutegiko arduradunari komunikatu behar zaio, bestela txartelaren bazkideak erantzukizun guztia izaten jarraituko du galera hau komunikatu arte. Halaber, bazkide txartelaren galerak txartel berria egitean 5 euroko isuna ordaintzea dakar.

15. artikulua

Bazkideak edozein daturen aldaketen berri eman beharko diolispasterko Udalari.

HIRUGARRENATALA **Mailegu motak**

16. artikulua

Ispasterko Udal Liburutegian ondorengo mailegu motak egin ahalko dira:

- Mailegu pertsonala.
- Mailegu kolektiboa.
- Liburutegi arteko mailegua.

LEHENENGO AZPIATALA **Mailegu pertsonala**

17. artikulua

Bazkideak gehienez 3 liburu mailegatu ahal izango ditu maileguan.

18. artikulua

Maileguaren iraupena 21 egunekoa da liburuentzat. Mailegu guztiak berriztatu daitezke dokumentuak duen epea berarekin liburutegiko beste bazkide batek ez badu erreserbarik egin eta mailegu epe barruan baldin badaude.

Era berean, maileguen luzapena pertsonalki, telefonoz edo posta elektronikoz eska daiteke, bazkide zenbakia eta dokumentuaren barra kodea adieraziz.

Liburutegiko arduradunak aurreikusitakoa baino mailegu epe laburragoa edo luzeagoa ezarri dezake, zerbitzuaren beharren arabera.



Elexalde Auzoa,9
48288 ISPASTER (Bizkaia)
Tfnoa.: 946842999 –946844025
Faxa.: 946243470
kulturetxea@ispaster.net
www.ispaster.net

19. artikulua

Mailegu bat duen bazkideak mailegutako dokumentua zaindu beharko du, dagokion epean bueltatu, eta mailegua egin aurretik funtsetan erreparatutako edozelako kalteak liburutegiko arduradunari adierazi beharko dizkio.

20. artikulua

Bazkideak maileguan eramandako dokumentua galtzen badu, galdutako dokumentuaren ezaugarri berak dituen beste batez ordezkatu beharko du edo ordaindu dokumentu horren prezioa.

21. artikulua

Bazkideek mailegatutako dokumentuen erreserbak egin ditzakete. Dokumentu berari erreserba bat bano gehiago egin ez gero, eskaera daten arabera segida jarraituko da. Bazkideari jakinarazi eta bi egunetara baliogabetzen da erreserba.

22. artikulua

Mailegua epean bueltatzen ez denean, atzerapenak hutsegitearen arabera zigorra dakar. Hasiera batean, bazkideak dokumentua itzuli bitartean atzerapeneko denbora bera mailegu zerbitzutik kanpo geratuko da. Horrela gehiagotan atzeratzen bada, zerbitzutik kanpo gera liteke.

23. artikulua

Arau hauek betetzen ez duten bazkideei liburutegiak aldi baterako edo betirako mailegu zerbitzuaren erabilera mugatu diezaieke.

BIGARREN AZPIATALA **Mailegu kolektiboa**

24. artikulua

Herri erakundeek (eskolak, erakunde kulturelek...) edo pertsona taldeek mailegu kolektiboak egin ahal izangodituzte ondorengo eginkizunak betez:

- Mailegatu zaizkien liburu multzoak, aurreikusitako epean bere kontura jaso eta bueltatzea.
- Erakunde bakoitzak maileguaren arduradun bat izendatzea.
- Mailegu arauak bete eta behar diren datu estatistikoak ematea.
- Mailegatutako dokumentuen galeren eta kalteen erantzukizuna bere gain hartzea.

HIRUGARREN AZPIATALA **Liburutegi arteko mailegua**

25. artikulua



Elexalde Auzoa,9
48288 ISPASTER (Bizkaia)
Tfnoa.: 946842999 –946844025
Faxa.: 946243470
kulturetxea@ispaster.net
www.ispaster.net

Liburutegi arteko maileguari esker, irakurleak nahi duen dokumentuak kontsultatu ahal izango ditu, edozein liburutegitan dagoela. Gauzak horrela, mailegu eskaera egiteko propio prestatutako inprimakia erabili behar da.

26. artikulua

Mailegu mota honetatik kanpo geratzen dira: aldizkako argitalpenak eta egunkariak, erreferentzi obrak, material bereziak, liburuak ez direnak eta dokumentuaren kontserbazioa kaltetu dezaketen maileguak.

27. artikulua

Mailegu mota honen iraupena hilabetekoa izango da, dokumentua jaso denetik zenbatzen hasita. Era berean, mailegatutako dokumentuaren zaintze egokia eskatzailearen ardura izango da eta mailegatutako dokumentuak kalteak edo galerak zigortuak izango dira, galdutako edo kaltetutako dokumentuaren beste ale bat jartzera behartuko da.

V.- KAPITULUA Funtsen dohaintza

28. artikulua

Bere ondasunen jabe den edonork egin dezake funtsen dohaintza. Era berean, liburutegiak edozein pertsona fisiko edo juridikoren bitartez jaso ditzake funtsak dohaintzan.

29. artikulua

Liburutegiko arduradunak aztertuko ditu dohaintzan eskaintzen diren dokumentuak. Aipatutako funtsen erabilera aproposena erabakiko du, berauen gaurkotasuna, iraunaldia eta balio patrimoniala kontuan hartuz.

30. artikulua

Dohaintza onargarria eta eraginkorra izango da, emaileak liburutegiaren onarpena ezagutzen duen momentutik. Dohaintzak ez du emailea behartzen, ezta ondoriorik ekartzen, onarpena baino lehen.

31. artikulua

Funtsen dohaintza ahoz zein idatziz egin ahal izango da. Liburutegiak dagokion agiria luzatu beharko diohala eskatzen duen emaileariedo berak baimendutako pertsonari.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengo xedapena



Elexalde Auzoa,9
48288 ISPASTER (Bizkaia)
Tfnoa.: 946842999 –946844025
Faxa.: 946243470
kulturetxea@ispaster.net
www.ispaster.net

Liburutegiko erabiltzaile izateak aurretik aipatutako arauen onarpena dakar. Aldi berean, gaizki erabiltzeagatik eskatu ahal zaizkion erantzukizun zibil, penal, administratibo, laboral, zerga erantzukizun edota bere erantzukizunetik eratorritako kalte-galeren ordainak, bere gain hartu beharko ditu Udalak inolako kalterik izan ez dezan.

Kalte ordainak ekonomikoak izanez gero, zuzenean ez bada egiten ordainketa, Udalak izendatutako teknikariaren ardurapean eta erabiltzailearen adostasunarekin, dagokion kitapena aurkeztuko zaio.

Bigarren xedapena

Urtean zehar Udal liburutegiko instalazioak zabaltzeko ordutegia onartutako urteko egutegiaren arabera izango da. Oro har, egutegi hori osatzeko kontuan izango dira erabiltzaileen ohiko maiztasun irizpideak eta jasotako aldizkako iradokizunak

Hirugarren xedapena

Erabiltzaileek eskura izango dituzte iradokizun-orriak, eta baitadesiderataorriak (obra berriak erosteko eskaera orria) ere; haien bidez iradokizun orokorrak eta erosketarakoak egin ahal izateko. Jasotzen diren iradokizun guztiak aztertuko dira eta ahal den heinean erantzun dira.

Laugarren xedapena

Arau hauetan jasotzen ez diren bestelako kasuetan, Udalak erabakiko du bidezkoena, kontuan izanda indarrean dagoen legedia eta zerbitzuaren onura. Era berean, zerbitzuaren arduradunak araudi honek jasotzen ez dituen kasuetan, gai honi buruz dauden goragoko mailako arautegia aplikatu diezaioke.

DILIGENTZIA.- Arautegi hau 2018ko urtarrilaren 16an egindako ohiko Osoko Bilkuran onartu zen .